

CHINIŠMEN ALTSUA

BAI, chinišmena, ukatu eziñ dan beziñ almen aundikua da gure arterako, aiñ aundikua, non, edozer beargaitan ekiten badiyo gizon edo emakumeak chinišmen osuan, eginkisun geyenetan irtengo dan ongi, eta irabazirik igaro bear lezaken denboraren erdiya baño geyago; bañan chinišmen edo arretarik gabeak galdu litzazke, gai, eta egunak dituen ordu guztiyak alferrik, nagitasunaren mendeko egintzaz.

Gizanagi eta chiništezkorrak, alfertasun aundiyaren jabe dira izan oi, eta arki litezke chit gaizki begiratuak eren adiskide eta chikitako lagun guztiyengandik, iñorchok ikusi ere nai ez dituela; bañan chinišmen edo arreta aundikuak, con nai ikusiko ditu beretzat ate guztiyak idikiyak, eta izango da ongi ikusiya gizartean.

Chinišmena da gauza geyenetarako gai eder eta maitakitsua, eta bere bitartez gerendu gintzazke ontasun aundiyak bere gayak ontzat arturik sayatzen bagera geon eginkisunetan.

¿Noratu liteke chinišmen gabeko gizona? Iñora ez, zergatik dan gizarterako buztinakiñ egintako marama bat balitzake bezela, ezaguera gabeko giziñoso bat, eta tresna alfer ezereza.

¿Zer aurrerakisun utzi lezake endorengo gizaldiyantzat orlako gizon batek, baldiñ beretzako diña egiten ikasi ez badu biziya irauten diyon artean?

Gizalfer batek ez lezake gai bearrezkorik izan ezertarako, ez ta ere chiništezkorrak, nai ta ezkua da chinišmenaren jabe izatia, dala batarako nola besterako; gizonaren ondekitasunik aundiyena da chinišmena.

Gai ontaz asko esan liteke, bañan ni nola naizen esagayez chit urriya, chirriřtatu ez nadiñ biderik laburrena artuko det lumaren arras-

kibildetzat, bada gayak eskatzen dizkit luzakisun aundiyak, bañan eziñak beti bezela menderatzen nau; ez dit usten nere jakiñ nai, eta ez izanak, gai eder au bear dan eran argitzen. Ni ez naiz lau abotarako Euskal-erriko ate zai azkeneko mallako bat besterik, bañan badira asko, egin lezatekienak ugari, lumaz eta mingañez, jakinduriz chit argi eta ni baño askoz ugariyaguak diralako; bada irakurle guztiyak dakizute, nere jakite gayak urri edo ezerezak dirala, bañan euskaraganako griñatsu eta arretatsuak.

Chiniñskorra dana da, aldezdun, era alderdi onak beregan dituen; bada beñ baño geyagotan gerra oi da gizartean gaiso jartzeakin, eta egiya dala irizpetzeko, ez dago arrazoi billa ibiltzeko idazti apal-etan batere nekatu bearrik, zergatik maiz samar ikusten deguna da gizon askorekin.

Iru urtez onuntzik gertatua bakarrik askiko det egi onen gayak zertarañokuak diran agertzeko.

Egun bateko arratsalde batean (au da), azaroillaren laugarrenean izango zan, aurkestu ziran ikustamen bat egitera uri ontako sendakiñ bategana, lau gizagaiño, zeukaten gaitzaren sendagai billa; ikusi zituben sendakiñak guztizko kontu aundiz, eta esan ziyen zeukatela gaitz bat chit erre senda zitekiena baldiñ esaten edo agintzen ziyena chiniñmen aundiz, eta arreta aundiyagoz egitera jartzen baziran.

Guztiyak erantzun ziyoten, oso gogoz jarriko zirala beraren aginte mendean, baldiñ sendatzeko itz jatorra ematen baziyen.

Gizagajuak gibeletik zeuden ajiatuak, edari patarkiyaren jipoatzez; eta nola sendakiñak ezagutu zituben zer zigorkada zeukaten, oartze on bat egiñu zenbaterañoko ez bearren jabe ziran eta zer perilltsua zan zeukaten gaitza, eragotzi ziyen betirako ardo eta pañar edatia, oarturik gañera ezercho jan gabe egon bearکو zutela egun mordozkacho batean, alik eta gaitzari eguak ebaki bitarte.

Ondoren esan ziyen zer biziera eraman bear zuten osoro sendatu artean; da esatia, ipiñi zitubela oso neurpe zorrotzpean, esnea bakar bakarrik arrzeko itzean, beste jakirik gabe; bañan nola lau ayetako iruri etzerizkiyoten ardorik edan gabe bizi zitekienik, etzuten arru sendakiñaren agintea aintzakotzat, eta lengogisara jarraitu zuten ardo edaten, sendakiñaren esanak zintzo egiten zitubenari itzuzkeriyak esanaz eta farrez.

Bañan jakiña dan bezela, gaitzak indar aundiya artu ziyen chiniñstzokor gizagajo ayeri, era polliki, polliki, berak uste etzuten garayan

sasoirik ederrenian galdu zuten beren biziya, gelditurik bakarrik, lau ayetatik bar bizirik, sendakiñaren aginteak zintzo egiten zitubena.

¿Zer da bada gauz ederragorik chinismen aundizko zintzotasuna baño? Orain dala bi gizaldiren kontua izango da, *Recamier* sendakiña zan bezelako ospatsua izanik, ziyotela *Paris* inguruko era bertako sendi askok chiniñmen aundiya, eta onek agintzen zuben guztiya oso zintzo, Jaungoikoaren agindu bat bezela egiten zuten.

Ainbesterañoko izena zeukan zabaldua jaun onek, non egun batean agindu ziyon gaiño bati, lusagar šerrak jan zitzala, eta urrena amaraunan ur egosiya.

Burgaitzaren sendagaitzat agindu ziyon beste bati, atera zezala agiñ bat, bada gis ontan berari zirizkiyona egiñik, sendatzen zituben gaiño asko; ¿bañan, guztiya zergatik? Chiniñmen altsuagatik.

JUAN INAZIO URANGA

